DASTAKETA PROFESIONALAK DISEINATU, GAUZATU ETA KOORDINATZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hainbat formatutako dastaketak diseinatu, gauzatu eta koordinatzeko zerbitzua ematea da, **Basque Wine** edarien eta Euskadiko beste nekazaritzako elikagaien ezaugarri bereizgarriak xede-publiko desberdinen artean ezagutarazi eta sustatzeko, eta haien inguruan sentsibilizatzeko.

2. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Lizitazio hau sentsibilizazio-, dibulgazio- eta sustapen-proiektu baten barruan kokatzen da, eta haren helburu nagusia **Euskadiko edarien (Basque Wine sustapen-markaren pean) ezaugarri bereizgarriak** ezagutaraztea da: Arabako Errioxa, Euskal Sagardoa, Txakolinaren 3 jatorri-deiturak (Araba, Bizkaia eta Getaria), Basque Beer eta Destilatuak elkarteko destilatuak, xede-publikoa (azken kontsumitzaileak, jatetxe-arloko profesionalak, komunikabideak...) Euskadiko edarien sektorearen balio ekonomiko, sozial eta kulturalaz sentsibilizatzeko eta sektorearekiko erantzukidetasuna sustatzeko.

3. EKINTZEN EZAUGARRIAK

Berrantolatuta:

Dastaketen eremu geografikoa EAE izango da nagusiki, baina Estatu-mailan ere egingo dira.

HAZIk zuzenean edo hirugarrenekin lankidetzan antolatu ahal izango ditu dastaketak. Azken kasu horretan, enpresa esleipendunak haiekin koordinatu beharko du, ekintza behar bezala gauzatzeko.

Dastaketak aire zabaleko edo barruko espazioetan egin ahal izango dira, hirugarrenek lagatakoetan edo HAZIk kontratatutakoetan. Espazioak eta azpiegiturak alokatzeko kostuak (aretoak, karpak, mahaiak, aulkiak, etab.) HAZIk hartuko ditu bere gain, enpresa esleipendunarentzako kosturik gabe

Dastaketek ordu 1 eta erditik 2 ordura bitarteko iraupena izango dute, eta gutxienez 20 pertsonak parte hartu beharko dute; dastaketa bakoitzean ezin izango da 30 pertsonako kopurua gainditu. Profesionalei, komunikabideei eta/edo azken kontsumitzaileei zuzenduta egongo dira.

Ekintza bakoitzean gutxienez 5-6 erreferentzia desberdin emango dira dastatzera. Edarien eta jatorri-deituren hautaketa jarduera bakoitzaren gaiari egokituko zaio.

Dastaketak monografikoak (edari mota bakar batean oinarrituak) edo mistoak (edari mota desberdinekin) izan ahal izango dira.

4. ZERBITZUEN EDO LANEN IRISMENA ETA DESKRIBAPENA

Kokapenaren arabera, dastaketak bi modalitatetan sailkatzen dira: Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) barruan eta kanpoan egiten direnak.

Dastaketa bakoitzerako eskainitako unitateko prezioak barne hartu beharko ditu enpresa esleipendunak jarri beharreko zerbitzu, lan, baliabide material eta produktu guztiak, agiri honetan ezarritako betebeharren arabera.

Unitateko preziotik kanpo geratuko dira berariaz HAZIk finantzatu beharreko gastuak, jarraian zehazten den bezala.

4.1 Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egindako dastaketak:

- HAZIrekin koordinatzea.
    a. HAZIk egokitzat jotzen dituen koordinazio-bilera guztietara joatea, haren edozein egoitzatan.
    b. Dastaketetan interesa izan dezaketenei buruz HAZIrekin koordinatzea.
    c. HAZIrekin batera dastaketen egutegia behin betiko finkatzea.
    d. Material didaktikoa (liburuak, liburuxkak...) HAZIrekin batera prestatzea.

- Dastaketa zuzentzea, gauzatzea eta koordinatzea.
    a. Interesdunekin harremanetan jartzea eta dastaketen xehetasunak jakinaraztea, zalantza guztiak argituz.
    b. Dastaketen lekua, eguna eta ordua interesdunekin adostea.
    c. Dastaketarako deialdia gainbegiratzea eta koordinatzea.
- Beharrezko material guztiekin bertaratzea.
- Dastaketa-areto osoa muntatzeaz eta desmuntatzeaz arduratzea eta lan horiek egitea.
- Ekitaldien esparruan programatutako komunikazio-ekintzei laguntza ematea.
- Parte-hartzaileek inkestak betetzen dituztela ziurtatzea.
- Urteko memoria egitea.

Unitateko preziotik kanpo geratuko dira eta HAZIk hartuko ditu bere gain:

- Espazioak eta azpiegiturak alokatzea (aretoak, karpak, mahaiak, aulkiak, etab.).
- Uztartutako dastaketetarako behar diren nekazaritzako elikagaiak eta ontzi eta tresna osagarriak, aldez aurretik HAZIrekin koordinatuta.
- HAZIk berariaz eskatutako gama altuagoko edarien kostu-aldea, 6. atalaren arabera.

4.2 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egindako dastaketak:

- HAZIrekin koordinatzea.
    a. Dastaketen plangintza HAZIrekin koordinatzea, honako hauek bereiziz:
        i. Beste merkataritza-ekintza batzuekin loturarik ez duten dastaketak: enpresa esleipenduna arduratuko da beharrezko produktuak eta materialak garraiatzeaz, bideragarria denean. Bestela, HAZIrekin koordinatuko du horiek ekitaldiaren lekura bidaltzea.
        ii. HAZIk antolatutako merkataritza-ekintzetan txertatutako dastaketak: HAZIrekin koordinatzea produktu-, material- eta ekipamendu-beharrak, baita horiek helmugan eskuragarri egotea ere, 5. atalaren arabera.
    b. HAZIk egokitzat jotzen dituen koordinazio-bilera guztietara joatea, haren edozein egoitzatan.
    c. Material didaktikoa (liburuak, liburuxkak...) HAZIrekin batera prestatzea.

- Dastaketa zuzentzea, gauzatzea eta koordinatzea.
- Dastaketa-areto osoa muntatzea eta desmuntatzea.
- Ekitaldien esparruan programatutako komunikazio-ekintzei laguntza ematea.
- Urteko memoria egitea.

- Unitateko prezioan barne hartutako eta kanpo utzitako gastuak:

- Eskainitako unitateko prezioak barne hartuko ditu dastaketak planifikatzeko, koordinatzeko eta gauzatzeko kostuak, bai eta enpresa esleipendunak jarri beharreko produktuak, materialak eta baliabide teknikoak ere, 5. atalaren arabera.

- Kanpoan geratuko dira, eta HAZIk hartuko ditu bere gain:

    - Langileen joan-etorriak, ostatua eta mantenua, 7. ataleko baldintzen arabera, esleipendunak kudeatuta eta HAZIk gainbegiratuta.
    - Produktuak eta materialak bidaltzea, baliabide propioekin garraiatzea bideragarria ez denean, aldez aurretik HAZIrekin koordinatuta.
    - Dastaketetarako behar diren espazioak eta azpiegiturak alokatzea.
    - Uztartzeetarako produktuak eta ontzi zein tresna osagarriak, bai eta HAZIk eskatutako gama altuagoko edarien kostu-aldeak ere.

- Azokei edo merkataritza-misioei lotutako dastaketetan, jardunaldi erdi bakoitzeko dastaketa bat fakturatuko da, eta jardunaldi oso bakoitzeko bi dastaketa (goizez eta arratsaldez), 7. atalaren arabera

5. GUTXIENEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

Enpresa esleipendunak honako baldintza tekniko hauek bermatu beharko ditu, dastaketa-modalitatearen arabera:

5.1. Dastaketa guztietarako baldintza komunak

- Beharrezko ikus-entzunezko eta soinu-ekipamendua izatea (proiektorea, pantaila, mikrofonoa eta bozgorailuak).
- Dastaketa mota bakoitzerako ikus-entzunezko material espezifikoa prestatzea; HAZIk material hori gainbegiratu eta baimendu beharko du.
- HAZIk emandako sustapen-materiala kudeatzea, bilketa, banaketa eta izakinen kontrola barne.
- Uztartutako dastaketetarako beharrezkoak diren nekazaritzako elikagaien eta ontzi eta tresna osagarrien hautaketa, erosketa eta kudeaketa HAZIrekin koordinatzea, 4. atalean ezarritakoaren arabera.

5.2. EAEn egindako dastaketak eta EAEz kanpo HAZIren merkataritza-ekintzei lotu gabe egindakoak

Enpresa esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- Beharrezko beirazko ontziak eta gainerako ontzi eta tresnak ematea (platerak, ahozapiak, mahai-zapiak, listua botatzeko ontziak, labanak, oholak, etab.), bertaratutako bakoitzeko 5 eta 6 kopa bitartean izatea eta horiek garbitzea bermatuz.
- Dastaketetarako material espezifikoak izatea, hala nola usaimena trebatzeko aromak eta hainbat kopa mota.
- Basque Wine edariak hornitzea, 6. atalean ezarritako baldintzen arabera.
- Sobratutako materialak eta produktuak jasotzea eta HAZIri itzultzea, horiek HAZIk eman dituenean.
- Ikus-entzunezko materialetan sektoreak gizarteari egiten dion ekarpenari eta herritarren erantzukidetasunari buruzko mezuak txertatzea, NIREA programaren ikuspegitik.
- Parte-hartzaileei inkestak egiteko beharrezko materiala ematea.

5.3. HAZIren merkataritza-ekintzei lotuta EAEz kanpo egindako dastaketak

Dastaketa horietan honako berezitasun hauek hartuko dira kontuan:

- Materialak eta ekipamendua: enpresa esleipendunak HAZIrekin koordinatuko ditu beirazko ontzien, gainerako ontzi eta tresnen eta baliabide teknikoen beharrak eta horiek helmugan eskura izatea. HAZIren ardura izango da eskuragarritasun hori kudeatzea, esleipendunarekin koordinatuta.

- Edariak: merkataritza-ekintzan parte hartzen duten enpresen Basque Wine produktuak erabiliko dira, Euskadi Basque Country markaren babespean.
- Uztartutako dastaketak: produktuak hautatzeko irizpide berari jarraituko zaio, eta haien erosketa eta kudeaketa HAZIrekin adostuko dira.

Helmugan bete ezin diren material- edo ekipamendu-beharrak aldez aurretik adostu beharko dira HAZIrekin.

6. DASTAKETETAN ERABILI BEHARREKO PRODUKTUA ETA BASQUE WINE EDARIEN PREZIOA

Dastaketa bakoitzean erabili beharreko produktuak Basque Wine edariak izango dira:

- Arabako Errioxako ardoak (Zonako ardoa, Herriko ardoa edo Partzelako ardoa)
- Txakolina (Getaria, Bizkaia eta Araba),
- Euskadiko sagardoa-Euskal Sagardoa
- Basque Beer elkarteko artisau-garagardoak.
- Destilatuak elkarteko edari destilatuak.

Horniduraren ardura enpresa esleipendunarena denean, produktuen publikoarentzako salmenta-prezioek (PSP) honako gutxieneko hauek bete beharko dituzte botilako:

Basque Wine ardoak	Prezioak
Arabako Errioxako ardoak	11 €
Bizkaiko Txakolina	9 €
Arabako Txakolina	9 €
Getariako Txakolina	9 €
Euskal Sagardoa	3,5 €
Basque Beer	2,5€

Edari destilatuen kasuan, edarien erosketa HAZIrekin adostuko da kasu bakoitzean.
Ekintza behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, erreferentzia bakoitzeko 3 botila beharko dira.
Ekitaldiak hala eskatzen badu, HAZIk gama altuagoko ardoak eskatu ahal izango ditu. Kasu horietan, prezio-aldea HAZIk hartuko du bere gain, 4. atalean ezarritakoaren arabera.

7. LOTUTAKO GASTUEN KUDEAKETA

EAEz kanpo egindako dastaketetan HAZIk bere gain hartutako gastuak, 4.2 atalean ezarritakoaren arabera, enpresa esleipendunak kudeatuko ditu, HAZIren gainbegiradapean eta honako baldintza hauekin:

- Hegaldiak eta ostatua: esleipendunak aldez aurretik aurkeztuko dizkio prezioak HAZIri, onar ditzan.

- Mantenua: gehienez 60 €/egun.
- Norberaren ibilgailua erabiltzeagatiko kilometrajea: gehienez 0,29 €/km.

Produktuak eta materialak bidaltzeko aparteko gastuak aldez aurretik koordinatu beharko dira HAZIrekin, 4.2 atalean ezarritakoaren arabera.

8. INKESTAK ETA BALORAZIO-TXOSTENAK

Enpresa esleipendunak dastaketen jarraipena eta ebaluazioa egin beharko ditu, honako hauen bidez:

- Gogobetetze-inkestak: EAEn egindako dastaketetan, aldez aurretik HAZIrekin adostutako edukiekin.
- Urteko memoria: egindako dastaketen datu nagusiak jasoko ditu (data, lekua, bertaratuen kopurua, erabilitako edariak eta produktuak, etab.), egindako inkestak ere txertatuta.
- Banakako txostenak: EAEz kanpo egindako dastaketetan, balorazio-txosten bat ere egingo da ekintza bakoitzeko.